



EBAZPENA (1/2011 esp., ERREGAIA HORNITZEKO LEHIAKETA)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 30a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta María Pilar Canedo Arrillaga andrea txostengile dela, ebazpen hau egin du **ERREGAIA HORNITZEKO LEHIAKETARI** buruzko 01/2011 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, José Luis Abajos Eguileta jaunak, ESTACIONES DE SERVICIO ONAINDIA, S.L. merkataritza-etxearen izen eta ordezkartzan, Gasteizko Udalaren kontra ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horren bitartez, Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatutako jokabideak ustez egin izana salatu zen.

AURREKARIAK

1. 2011ko urtarrilaren 13an ESTACIONES DE SERVICIO ONAINDÍA, S.L. merkataritza-etxeak Gasteizko Udalaren kontra ipinitako salaketa sartu zen Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren erregistroan. Salaketa hori udal horren ibilgailuentzako erregaien hornikuntza kontratatzeko lehiaketa publikoaren deialdiarekin zegoen lotuta (esp.: 2010/CONSOC0117), eta honako gertakari hauek adierazten ziren bertan:
 - a) Enpresa salatzaileak, *Estaciones de Servicio Onaindia, S.L.k*, automobilgintzako erregaiak hornitzen ditu txikizka, eta beste zerbitzu osagarri batzuk ere ematen ditu.
 - b) Enpresa horrek instalazio bi ditu Gasteizen automobilgintzako erregaiak txikizka hornitzeko.
 - c) *Estaciones de Servicio Onaindia, S.L* Gasteizko Udalaren erregaiak hornitzeko lehiaketaren adjudikazioduna izan zen 2005eko urtarriletik 2009ko irailera.
 - d) Gasteizko Udalak beste kontratazio-lehiaketa publiko baten deialdia egin du, xede honekin: Gasteizko Udalaren ibilgailuentzako erregaien hornikuntza. (140. zenbakiko ALHAO, 2010eko abenduaren 31koa).



- e) Bai Administrazio Klausula Berezien Agirian (11. puntua, hornikuntza emateko lekua) bai Preskripzio Teknikoen Agirian (4. puntua, hornikuntzarako kontrol-txartelak) prozeduran parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza bat aipatzen zen: enpresa adjudikaziodunak lurralde nazional osoan izan beharko lituzke hornigailuak.
- f) Enpresa salatzaileak uste du baldintza horrek lehia urratzen duela, lizitatzailen lehia mugatzen duelako arrazoirik gabe. Eurek ere ezin izan zuten lizitazioan parte hartu —nahiz eta errekurtsioa aurkeztu zieten baldintza-agiriei Kontratazio arloko errekurtsio bereziaren bitartez eta lehiaketa kautelaz etetea eskatu zuten ⁽¹⁾— eta baldintza bete dezaketen bi enpresa bakarrik daudela kalkulatzeko dute.
2. 2011ko otsailaren 2an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpena eman zuen, informazio erreserbatua hasiko zela erabakiz, hala balegokio, bidezko zehapen-espeditzea hasi aurretik, salatutako gertakariak egiazkoak ziren egiaztatzearen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
3. 2011ko otsailaren 10ean Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (aurrerantzean LDEZ) informazioa eskatu zion Gasteizko Udalaren kontratazio-zerbitzuari. 2011ko martxoaren 9an bete eta bidali zen hori, honakoa adieraziz:
- Hornigailuak lurralde nazional osoan izateko baldintza ezarri da “udal ibilgailuen kudeaketa propioa errazteko, gure ibilgailuak hemendik ateratzen direlako, autobideak erabiltzen dituztelako eta nazio-mailan dituztelako hornitzeko beharrianak”.
 - Beste lizitatzailen batzuek lehiaketan parte hartzeko aukera gutxiago murrizten duten beste aukera batzuk egoteari dagokionez, adierazi da “hornitzaile bakar batekin ebazten direla gure beharrian guztiak eta kudeaketa errazten dela. Tokiko hornitzaile batek ere, hitzarmenak egingo balitu nazio mailako hornitzaileekin, aurkezteko aukera izango luke”.
 - Udalak deitutako azken lehiaketei dagokienez, honakoa diote: “Kontratazio Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, azken bost urteetan lehiaketa baten deialdia egin da Gasteizko Udalaren ibilgailuentzako erregaien hornikuntza kontratatzeko (ESP.: 2009/CONSOC0037).
- Lehiaketa horretan ez zen ezarri adjudikaziodunak lurralde nazional osoan izan beharko lituzkeela hornigailuak.
- Enpresa bakarra aurkeztu zen lehiaketa horretara, SOLRED, S.A. enpresa, eta baldintza-agirietan xedatutakoa betetzen zuenez kontratuaren adjudikazioduna izan zen.”



- SOLRED, S.A. izan da Udalaren ibilgailuentzako erregaia hornitzeko azken kontratuaren lizitaziora (esp.: 2010/CONSOC0117) aurkeztu den enpresa bakarra.
 - Espedientearen tramitazio-egoerari dagokionez, adierazi da 2011ko otsailaren 18an, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bitartez, ekonomikoki abantailatsuen zen eskaintza hautatu zela eta bidezko dokumentazioa eskatu zitzaiola SOLRED, S.A. enpresari.
4. 2011ko uztailaren 13an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egindako ebazpen-proposamena bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi. Bertan LDEZk LDEAri proposatu zion salaketa artxibatzeko eta zehapen-espedienterik ez irekitzeko salatu zen jokabideari zegokionez.
 5. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2011ko abenduaren 30eko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, María Pilar Canedo Arrillaga andrea zela txostengilea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

6. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, lkerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeko aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*
7. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
8. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren



Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluaekin bat etorritik.

9. LDEZren ebazpen-proposamenak dio, salatutako gertakariak ikusita, ez dela ikusi Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen aginduak hautsi izanari buruzko zantzurik. Hori dela eta, zehapen-prozedurarik ez irekitzeko proposatu zaio LDEA honi.

Hala eta guztiz ere, LDEZk LDEAri proposatu dio sustapen-jarduerak egin ditzala Gasteizko Udalaren Kontratazio Zerbitzuan, lehia bultzatzeko bere kontratazio-prozedurak diseinatu, garatu eta gauzatzean.

10. Salatutako gertakariak automobilgintzako erregaiak txikizka hornitzeko merkatuan garatu dira, Gasteizko Udalak bertara jo nahi duela bere ibilgailuetarako hornikuntza eskatzeko. Gasteizko Udala erregaiaren hornikuntzaren eskatzailea da aipatutako merkatu horretan.

11. Gasteizko Udala administrazio publikoa da eta, beraz, legezkotasun-printzipioa bete behar du, Espainiako Konstituzioaren 9. eta 103. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Administrazio publiko horrek, Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen 7/1985 Legeak) aintzatetsitako eskumenak erabiltzeko, aipatutako merkatuan sartu nahi du Gasteizko Udalaren ibilgailuetarako erregaien hornikuntza kontratatuzko merkatu horretako eragile ekonomikoekin. Ez dauka askatasunik nahi duen eragile ekonomikoarekin kontratatuzko, legezkotasuna betetzeko kasu zehatz bakoitzean lortu behar duen interes orokorra asetzeko. Erregulazio berezi bat bete behar du, sektore publikoko kontratazioarena, eta gaur egun Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak arautzen du hori. Lege horren xedea da sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikitatearen printzipioak eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak; bestetik, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatuzko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztetik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuen den eskaintza hautatuz.

Administrazioko kontratuen eremuan lehia askea zaintzeko ezinbestekoa da Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea eta Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legea betetzea.

12. Kontratazio publikoaren eremuan sektore publikoko erakundeek lehiaren defentsari buruzko araudia bete behar dute batez ere. Izan ere, erregulazio berezi hori betetzeko beharra, dagoeneko aipatu den sektore publikoko



kontratazioari buruzko legetik eratortzeaz gain, lehiaren defentsari buruzko berariazko arauditik ere eratortzen da, hau da, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legetik eta Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legetik. Sektore publikoko erakundeek, interes orokorra asetzeko, merkaturen batean obra, zerbitzu eta hornikuntzak eskatzeko sartu nahi dutenean, administrazio-kontratazioa arautzeaz gain lehiaren defentsa ere arautzen duen berariazko araudia bete behar dute.

13. Premisa horiek oinarri hartuta, administrazio publikoek kontratuak egiteko bidezko espedientea tramitatu behar da aurretiaz, kontratazio-organoak hasten duela kontratuaren beharra arrazoituz. Kontratazio-espediente administratiboa osatzean alde bi berezi behar dira, batetik prestaketa eta bestetik adjudikazioa. Prestaketaren eremuaren barruan, batetik alde ekonomikoa dago, hau da, kontratua gauzatu ahal izateko kreditua onestea, eta bestetik alde juridikoa, administrazio-klausula orokor eta bereziak zein preskripzio tekniko berezien agiriak onestea.
14. Administrazio-klausulen agiriak eta Preskripzio teknikoan agiriak funtsezko elementuak dira kontratazioan, eta lizitazioa, adjudikazioa eta kontratuaren gauzatzea eraendu behar duten klausula eta baldintza guztiak azaldu behar dituzte.

Auzitegi Gorenaren 2005eko ekainaren 17ko epaiak (412/2002) honakoa dio:

“...Jakina da administrazio-kontratazioan hainbat fase daudela, argi eta garbi berezita, kontratua prestatu, adjudikatu eta gauzatzeko. Fase bakoitzak berariazko erregulazioa dauka, eta ebazpen zehatzak eragiten dituzte. Ebazpenok ekintza banagarriak dira eta, ondorioz, gainerako hurrengo ekintzetatik berezita egin daiteke horien aurka Auzitegietan. Bada, administrazio publikoen kontratuei buruzko araudian aurreikusi ez denari dagokionez, Administrazio kontratugileak kontratu zehatz bakoitzerako onetsitako administrazio-klausula berezien agirietan eta preskripzio teknikoan agirietan horri buruz ezarritakoak eraenduko du kontratua. Agiri horiek kontratu bakoitza eraenduko duten klausula juridiko, ekonomiko eta teknikoak azaltzen dituzte, eta ez bada klausula horien aurka behar bezala egiten (biltzen dituzten baldintza-agirien aurka eginez), onartu egin direla ondorioztatuko da, eta gero ezin izango da horien aurka egin kontratua adjudikatzeko ondorengo ekintzen babespean. Izan ere, adjudikazio hori guztiz dator bat baldintza-agiriotan aurreikusitakoarekin, eta interesdunek pentsatu izan balute zuzenbidearen aurkakoak zirela, bere garaian egin behar izan zuten horien aurka...[...].”

Auzitegi Gorenaren 2006ko otsailaren 1eko epaiak (3092/2003) honakoa dio:



“Jakina den bezala, Sala honek baldintza-giriari buruz duen jurisprudentzia ahobatezkoa da: gure antolamendu juridikoaren arabera eta hainbat epaitan adierazitakoaren arabera, baldintza-agiri edo oinarri horiek konkurtso legea eratzen dute [...]”

- 15.** ESTACIONES DE SERVICIO ONAINDIA, S.L. enpresa salatzaileak erregaiak hornitzen ditu txikizka, eta 2005etik 2009ra bitarteko urteetan hornitu du Gasteizko Udala, erregaien hornikuntzari buruzko lehiaketaren adjudikazioduna izan zelako.
- 16.** 201eko abenduaren 31an (140. zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bitartez, beste lehiaketa baten deialdia egin zen Gasteizko Udalaren ibilgailuentzako erregaiak hornitzeko.

- 17.** Salatzailearen iritziz, bai administrazio-klausulen agirian (11. puntua) bai eta preskripzio teknikoaren agirian ere (4. puntua) prozeduran parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza bat azaltzen zen, hau da, enpresa adjudikaziodunak lurralde nazional osoan izan beharko lituzkeela hornigailuak. Salatzaileak dio betekizun horrekin lehia urratu egiten dela, lizitatzaileren lehia arrazoirik gabe mugatzen duelako. Enpresa horrek ezin izan zuen lizitazioan parte hartu, nahiz eta errekurtoa aurkeztu zien baldintza-agiriei Kontratazio arloko errekurtsio bereziaren bitartez eta lehiaketa kautelaz etetea eskatu zuen.

Salatzailearen ustez jokabide horrek Lehiaren defentsari buruzko 15/2007 legearen 1. artikulua urratzen du. Artikulu horrek debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea. Halaber, salatzailearen iritziz, aukera ematen du Legearen 2. artikulua debekatzen duen nagusitasunezko egoera sortzeko enpresa handi bien inguruan.

- 18.** Honen bitartez LDEAk aztertu behar du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urratu izanaren arrazoizko zantzurik ondoriozta daitekeen salatu den jokabidetik.

LDEZk zehapen-prozedurarik ez irekitzeko proposatu dio LDEA honi, salatutako jokabidean ez delako ikusi Lehiaren Defentsari buruzko Legea urratu izanaren arrazoizko zantzurik. Halaber, LDEAri proposatu zaio sustapen-jarduerak egin ditzala Gasteizko Udalean (Kontratazio Zerbitzuan), lehia bultzatzeko bere kontratazio-prozedurak diseinatu, garatu eta gauzatzean.

- 19.** Lehenengo eta behin LDEA honek egiaztatu egin behar du Gasteizko Udalak Udalaren ibilgailuentzako erregaiak hornitzeko deitu duen lehiaketa publikoan enpresa salatzaileak ez duela eskaintzarik aurkeztu, eta nahiz eta errekurtsio berezia ipini duen lizitazio-iragarkiaren kontra, administrazio-



klausula berezien kontra, preskripzio teknikoaren agiriaren kontra eta kontratuko gainerako agiriaren kontra, garaiz kanpo ipini zela, Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko urtarrilaren 14an hartutako erabakitik¹ ondorioztatu denez.

Beraz, lehenengo eta behin egiaztatu behar da salatzaileak ez dituela behar bezala gauzatu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak ezartzen dituen mekanismo juridikoak lizitazio-prozeduran zuen interesa defendatzeko, eta aukera galdu duela ezer egin ez duelako.

Hala ere, EAEko Lehiaren Agintaritzarengana jo duenez administrazio-klausula berezien agiriko klausularen bat (hain zuzen ere 11. klausula) eta Preskripzio teknikoaren agiria Lehiaren Defentsari buruzko Legearen kontrakoak direla jakinarazteko, klausula horiek aztertu egingo dira lehiaren defentsaren ikuspegitik.

- 20.** Lehiaren defentsari buruzko legearen 1. artikulua debekatutako jokabidetzat hartzen du *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea*. Premisa gisa, arau hori aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da alde biko edo alde anitzeko adostasunezko elementuren bat egotea. Halaxe adierazi zuen dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak hainbat ebazpenetan, esaterako 2000ko martxoaren 22ko ebazpenean (r 397/99 espedientea, Canteras del Bierzo), 2002ko urtarrilaren 17ko ebazpenean (510/01 espedientea, Fujifilm), 2001eko ekainaren 11ko ebazpenean (490/00 espedientea, Repsol), etab.

Aztertzen gabiltzan kasuan ez da inolako akordiorik ondorioztatu, ez alde biko, ez taldekoa. Aldiz, kontratazio publikoaren alorrean legeak ematen dizkion eskumenak erabiliz toki-erakunde batek hartutako alde bakarreko erabakia da. Gauzak horrela, esan litekeen gauza bakarra da ez dela inola ere urratu Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua.

- 21.** Nagusitasunezko egoeraren abusuari dagokionez, Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako Legearen 2. artikulua debekatu egiten du *enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean*. Debekatuta dagoena ez da merkaturan nagusitasunezko egoera izatea, baizik eta egoera horren abusia egitea.

Nagusitasunezko egoera hori enpresa batek izan behar du, publikoa zein pribatua izan, bere helburuak betetzeko jarduera ekonomikoak garatzean. Enpresaren kontzeptua zabal dago definituta². Merkaturan jarduera ekonomikoren bat modu autonomoan garatzen duen eskubideen subjektu

¹ <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb004/docs/es/Acta-3490.pdf>.

² EEJAren 1987ko ekainaren 16ko epaia (C-118/85, Batzordea/Italia) eta LDAren 1997ko urtarrilaren 29ko ebazpena (R 179/96 espedientea, Espainiako Gurutze Gorria).



oro hartzen du, bere estatutu juridikoa edozein dela ere³. Erabakigarria ez da forma juridikoa, baizik eta jarduera ekonomikoa garatzea, kudeaketaren eremuan jarduten duenean. Alderantziz, enpresa kontzeptutik kanpo uzten da jarduera botere publikoa garatzeko bakarrik denean.

Batzordeak nagusitasunezko egoeraz abusatzeko debekua hautsi dela egiaztatzeko, merkatu adierazgarriak ezarri behar dira aurretiaz (EEJAren Epaia, 1978ko otsailaren 14koa, United Brands Continental/Batzordea, 27/76), enpresa inputatuak benetan nagusitasuna duen argitzeko; gero, hala badagokio, merkatuan duen nagusitasunezko egoera hori abusuz erabili duen aztertu beharko da. Hain zuzen ere, LDEZk ebazpen-proposamenean dioen bezala, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikulua aplikatu ahal izateko, lehenengo eta behin, argi egon behar da salatutako jokabidean sartuta dagoen eragileak nagusitasunezko egoera duela aipatutako merkatu adierazgarrian. Bigarrenik, nagusitasunezko egoera hori abusuz erabili behar da, aztertzen gabiltzan salaketan zuzenean edo zeharka bidezkoak ez diren prezioak edo bestelako merkataritza- edo zerbitzu-baldintzak ezartzea izango litzatekeela abusu hori⁴.

Kasu honetan aztertu behar dugu Gasteizko Udalak eragile ekonomiko gisa ala enpresa gisa jarduten duen ibilgailuentzako erregaiak txikizka hornitzeko merkatu adierazgarrian. Erantzun azkar eta erraza du galdera horrek: Gasteizko Udala udal ibilgailuentzako erregaien hornikuntza eskatzeko bakarrik sartzen da merkatu horretan. Ez da eskaintzailea, baizik eta erregaien eskatzailea, eta zalantzarik gabe esan daiteke merkatu horretan ez duela nagusitasunezko egoerarik eta, ondorioz, ezin duela egoera hori abusuz ustiatu.

Horrenbestez, Gasteizko Udalak ez duenez inolako egoerarik aipatutako merkatu adierazgarrian (ez bada erregaien hornikuntzaren eskatzailea izatea), ezinezkoa da nagusitasunezko egoera izatea, eta are gutxiago egoera horren abusua egitea. Beraz, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua urratu ez dela ondorioztatu da.

- 22.** Hala eta guztiz ere, nazioko eta nazioarteko lehia-agintaritzek ezarritako arauekin bat etorrira, LDEAK uste du bereziki garrantzitsua dela kontratazio publikoaren eremuan lehia defendatzeko arauak betetzea. Izan ere, eremu horrek garrantzi ekonomiko handia du, zalantzarik gabe, eta bertan lehia askea zaintzeak bermatu egin behar du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioak eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak; bestetik, ziurtatu behar du diru-funtsak eraginkortasunez

³ EEJAren irailaren 21eko epaia, C-67/96, Albany International.

⁴ Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2 a) artikulua.



erabiliko direla, dauden premiak alde zurratik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuen den eskaintza hautatuz⁵. Lizitazioetako lehiaren ondoretarako, baldintza-agirien diseinuari buruzko alderdi garrantzitsuen artean, lizitatuzaileen kaudimen-eskaera eta sailkapenarekin, beharrezkoak ez diren edo gehiegizkoak diren baldintza teknikoekin edo forma juridiko jakin baten eskakizunarekin batera, "lurralde arazoengatik diskriminazioa" izeneko ere egon daiteke. Horri jarraiki, debekatutakotzat hartuko dira klausulen erreferentzia guztiak baldin eta horietatik tratu-ezberdintasunak erator badaitezke adjudikaziodunaren nazionalitatearen, hizkuntzaren, egoitzaren edo lurraldearen arabera, nahiz eta zeharka izan, esaterako eremu geografiko bati lotutako esperientzien lehentasuna, edo balizko adjudikaziodunek erreferentziatzko lurraldean instalazioak izateko eskakizuna⁶.

Aipatzekoa da lizitatuzaileen artean lehia egokia izateak emaitza onuragarriak eragiten dituela, hau da, prezio merkeagoa eta kalitate handiagoa, interes orokorrari on eginez. Konkurrentziak zerbitzu onenak prezio onenetan eskuratzeko aukera ematen die administrazio publikoei.

- 23.** Gasteizko Udalak aipatutako lehiaketa publikoaren bitartez egin zuen lizitazioaren helburua udalaren administrazio-beharrizanak asetzea da, hau da, Gasteizko Udalaren ibilgailuentzako erregaien hornikuntza-beharrizanak asetzea. Erregaien hornikuntza-beharrizanak horiek betetzea ezinbestekoa da zenbait zerbitzu publiko behar bezala eman ahal izateko, esaterako polizia, suhiltzaileak, gizarte-zerbitzuak, etab.

Salatzaileak, Gasteizko Udalerako erregaiak hornitzeko lehiaketaren adjudikazioduna izan zenez 2005eko urtarriletik 2009ra bitartean, aipatu egin du ibilgailu horietarako erregaien hornikuntza gehiena udal mugartean egiten dela, eta salbuespena direla udal mugartetik kanpo egiten direnak.

Aipatutako lizitazioan kontratua gauzatzeko ezinbesteko baldintza gisa aipatzen da enpresa adjudikaziodunak lurralde nazional osoan izan behar dituela hornigailuak, eta hori eragozpena izan daiteke lehia eraginkorrerako, lizitazioan parte hartzeko muga ezartzen dielako estatu-mailako banaketa-sarerik ez duten enpresei.

- 24.** Hala ere, aztertu egin behar da murrizketa hori arrazoituta dagoen eta proportzionala den lortu nahi dituen helburuekin, eta lehiarako hain kaltegarria ez den bitartekorik dagoen lortu nahi diren helburuak lortzeko.

⁵ OECD Principles on Public Procurement, 2009, in http://www.oecd.org/document/5/0,3746,en_2649_34135_41883909_1_1_1_1,00.html, EUROPAKO BATZORDEA, Kontratazio publikoari buruzko adierazleak 2008an, 2010eko apirilaren 27an argitaratutako lan-agiria. Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/internal_market/publicprocurement/docs/indicators2008_en.pdf. Halaber, LBNren Lehiari eta Kontratazio Publikoari buruzko Gida, 2011: <http://www.cncompetencia.es/Inicio/Promocion/GuiaparaAAPP/tabid/177/Default.aspx>

⁶ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, 16. orr.



Gasteizko udal mugartetik kanpo egiten den erregai-hornikuntza salbuespenezkoa izateak are gehiago azpimarratzen du ez dagoela arrazoirik adjudikaziodunak hornigailuak lurralde nazional osoan izateko beharrak dakarren lehia-murrizketarako. LDEZk ebazpen-proposamenean dioen bezala, hornigailuak lurralde nazional osoan izateko baldintza erabat neurrigabea da kontratuaren xedea kontuan hartuta. Izan ere, egia da Udalaren ibilgailuek udalerritik irten beharko dutela eta erregaia udalerritik kanpo erosi, baina ez da sarriegi egingo, eta are gutxiago estatu osoan.

LDEA ez dago ados Gasteizko Udalak erabilitako justifikazioarekin, hau da, baldintza horrek kontratatutako hornikuntzaren kudeaketa errazten laguntzen duela. Izan ere, lehia gutxiago murrizten duten beste modu batzuk daude, kudeaketaren erraztasuna ere eskaintzen dutenak, eta horien artean lehia gutxien murrizten duen aukera hartu beharko luke Udalak (adibidez enpresa adjudikaziodunak gaitutako ordainketa-txartela erabiltzea).

Beraz, LDEA honek uste du kontratuaren helburuarekin lotutako justifikazio, proportzionaltasun eta egokitasunik ez duten klausulak direla.

- 25.** Lehiaketa publikoaren bitartez hartu den aukeraren ondorioz, lehia murriztu egin da, baldintza lizitazioan parte hartzeko betekizunen artean egon ez arren (kaudimen tekniko, ekonomiko, finantzario eta profesionalaren betekizunak), betekizun berezia baita kontratua gauzatzeko moduari dagokionez, erregaia hornitzeko merkatuan aritzen diren eta Gasteizko Udalaren ibilgailuentzako erregaia hornitzeko kontratua gauza lezaketen enpresek lizitazioan parte hartzeko aukera mugatzen dela. Egiatan egoera horrek lehia murriztu du, eta ondorioz lizitatzailerik bakar batek aurkeztu du eskaintza, horixe izan dela adjudikazioduna.
- 26.** Gauzak horrela, Gasteizko Udalak, lotura bizia duenez legezkotasun-printzipioarekin eta, ondorioz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearekin eta lehiaren defentsa eta lehia desleiala arautzen dituzten araudiekin, Administrazio-klausula berezien agiriak eta Preskripzio teknikoaren agiriak onetsi aurretik, agiriok araudi horrekin bateragarriak diren aztertu behar du, eta lehia gutxien murrizten duen irtenbidea hartu. Lan hori egiteko, aipatutako araudiez gain, erabilgarria izan daiteke Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako Lehiari eta Kontratazio Publikoari buruzko Gida (ebazpen honetako ohar batean aipatu da). Era berean, erabilgarria izan daiteke LDEA hau, alderdiak eskatuta, aurreikusi diren lizitazioak lehiaren araudiarekin bat datozen azter baitezake aholkularitza-lana egitean.



EBAZPENA

BAKARRA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez irekitzeko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 30a

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
M^a PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI